



PRENTSA OHARRA

BILBOKO ARTELAN BERREGINEN MUSEOAK ADIN GUZITENTZAKO MARRAZKETA ETA MARGOLARITZA IKASTAROA ANTOLATU DU

- Eskolak asteartetik ostiralera eskainiko dira, urriaren 2tik abenduaren 20 bitartean, goizeko eta arratsaldeko txandetan
- Museoak 90 plaza eskainiko ditu (30 txanda bakoitzean), eta izena emateko epea irailaren 18tik 26ra izango da

Bilbo, 2007ko irailak 19.- Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Saila eta Bizkaiko Foru Aldundiaren menpe dagoen Bilboko Artelan Berreginen Museoak adin guztientzako marrazketa eta margolaritza eskolak eskainiko ditu urte honen azken hiruhilabetekoan. Ikastaro hau urriaren 2an hasi eta abenduaren 20ra luzatuko da, eta eskolak asteartetik ostiralera emango dira, goizeko eta arratsaldeko txandetan. Ikastaroa Museoak Mirasol Kondearen kaleko 2an dituen instalazioetan egingo da eta **Manuel Balsa “El ruso”** ezizenaz ezagutzen den irakasle ospetsuak emango ditu klaseak. Bertan parte hartzeko interesa dutenek izena eman dezakete hilabete honen 18tik 26 bitartean.

Guztira, 90 plaza eskainiko dira (30 txanda bakoitzean), eta 90 euroko prezioa izango dute (62€ langabetu, familia ugariko kideak, etab.). Ordutegiei dagokienez, goizeko txanda 10:00etan hasi eta 12:00etan amaituko da, eta arratsaldekoa, 16:00etatik 18:00ak bitartekoa izango da asteartetik ostiralera bitartean. Gaueko txandan izena emateko aukera ere eskeintzen da: asteartetan eta asteazkenetan, 18:00etatik 20:00etara.

Onartutakoen zerrenda irailaren 28an jarriko da, Museoak duen Egoitza Didaktiko eta Administratiboko iragarki taulan (Mirasol Kondea, 2), goizeko 11:00etatik aurrera. Matrikula eskariak eskeintzen diren plaza kopurua gaindiko balu, hauek zozketa bidez emango dira eta behin betiko matrikula zerrenda ikastaroaren lehen astean zehar jakin izango da, urriaren 2tik 5 bitartean.

Informazio gehiago lortzeko, **deitu 94 415 76 73 telefonora** edo Museoaren webgunea bisitatu: <http://www.bilbokoberreginenmuseumoa.org>.



BILBOKO BERREGINEN MUSEOA
MUSEO REPRODUCCIONES BILBAO

INFORMAZIO GEHIAGO:

[L&V COMUNICACIÓN – Itziar Villamandos](#)

BERREGINEN MUSEOKO PRENTSA KABINETEA

Kale Nagusia, 81 – 3. solairua, 9. bulegoa. 48011 BILBO

Tel. 94 416 08 00 - Faxe: 94 439 30 56

Sakelakoa: 657 796 583

villamandos@lvcomunicacion.com